

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bakioko Udala****2020ko Udal Aurrekontu Orokorra hasikera batean onetsi (Iragarkia 2020-05-02 Bakio).**

Bakioko Udalak, 2020ko zezeilaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran, korporazioa legez osotzen daberen zinegotzien gehiengo osoaren aldeko botoarekin, hasikera batean hauxe onartu dau: 2020ko udal aurrekontu orokorra, dagozkion eranskinak barnean direla, besteak beste, aurrekontu-plantilla eta aurrekontuen betearazpenari buruzko araua.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2020ko martxoaren 10ean (48. zenbakiko buletina) argitaratu zen dagokion iragarkia, eta, bertan, aditzera eman zen espedientea hamabost egun balioduneko egongo dela ikusgai udaletxean, iragarki hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, eta, beraz, 2020ko martxoaren 11tik aurrera.

Martxoaren 14an argitaratu eta indarrean jarri zen 463/2020 Errege Dekretua, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena. Errege Dekretu horretan adosten ziren neurriak ikusita, ezinezkoa zen hasierako onespenerarekin ematen zen entzunaldi-izapidea betetzea, gutxienez beharrezko berrimekin, biztanleek ezin baitzuten aurrekontu-espedientea eskuratu. Egoera horrek eta Errege Dekretuak berak bultzatu zuten Udala aurrekontuaren izapidetze-epeak etenda zeudela interpretatzera.

Hala ere, konfinamendu-neurriak aldatu egin dira, eta, horrenbestez, udaletxean aurrekontu-espedientea aztertze baldintzak ere aldatu egin dira. Izan ere, une honetan, Udalak aukera du espedientea behar duen pertsonak azter dezakeela bermatzeko. Horretarako, aurretiaz eguna eta ordua hartu behar dira, Udalaren jendaurreko telefono-zenbakira deituz.

Azken hori kontuan hartuz, Udalbatzak, 2020ko otsailaren 27ko osoko bilkuran, hasieran onartutako 2020ko Udal Aurrekontua aztertu eta alegazioak aurkezteko epeari berriro ekin behar zaio, eta, beraz, espedientea ikusgai egongo da udaletxean hamabi egun balioduneko epean, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 17. artikuluan aipatutako interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Udalari, artikulua horretan ezarritako arrazoiengatik.

Bakion, 2020ko maiatzaren 19an. — Alkate andrea, Amets Jauregizar Baraiazarra